



Lioba Maiza Recondo andreak, Donostiako Udaleko Kontu Hartzaile Nagusiak,

2023 Ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren Proiektuari dagokionez, ekonomia, finantza eta aurrekontu kudeaketaren kontrol eta barne fiskalizazioaren funtzio publikoa betez eta 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5ekoak, Toki Ogasunen Lege Araztaileari buruzko Testu Bategina onesten duenak, 168.4 artikuluan xedatutakoaren eta 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 14., 65. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, jarraian ageri den txostena eman du.

TXOSTENA

Donostiako Udalaren 2022 ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Proiektua aztertu ondoren, datozen egunetan Udalaren Osoko Bilkuran onartu beharko dena, haren berri ematen da, edukia atal hauetan banatuz:

1. 2022 ekitaldi amaierarako aurreikusitako Erakundearen egoera ekonomiko-finantzario erreala.
2. 2023 ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Proiektuaren Espedientearen edukia.
3. Diru sarreren zehaztapena, gastuen nahikotasuna eta Aurrekontu Proiektuaren berdinketa eraginkorra.
4. 2023rako Aurrekontu Proiektuaren aurrekontu egonkortasunaren eta jasagarritasun finantzarioaren analisia (udal zorraren muga eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denbora).
5. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, betetzea.
6. Administrazio taldearen Aurrekontu Proiektuaren aurrezki garbia, zorraren egoera 2023.12.31ko datan eta 2023 ekitaldian formalizatuko diren mailegu berrien azterketa.
7. Ondorioa.

1. EKITALDI AMAIERARAKO AURREIKUSITAKO ERAKUNDEAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO ERREALA

Aurreikusitako Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa ona da, balioztapena egiteko edozein indize erabiliata ere. Hauek dira toki erakunde baten egoera balioztatze indize ohikoenak Udalaren kasuan:

Funts likidoak	66.473.778,12€
Kobrantsa zalantzagarrizat jotzen diren diru sarrerretarako zuzkidura	21.719.350,61€
Diruzaintzaren geldikina	124.458.280,60 €



Aurrezki garbia	9.277.418,49€
Finantzatze gaitasuna KSEaren arabera	35.707.603,70€
Zorra 2022/12/31ko datan	66.101.892,99€
2022rako aurreikusitako ohiko diru sarrerak	340.406.995,37€
Zor indizea	% 19,41

Funts likidoak eta erabiltzeke dauden maileguak elkarrekin azter daitezke. Inbertsioak finantzatze onartu diren maileguak ez dira erabili ez delako beharrezkoa izan, funts likidoekin nahikoa izan da izandako ordainketak egiteko, bai ohikoak zein inbertsioetakoak ere, eta ekitaldi amaierarako aurreikuspenen arabera, ez da beharrezkoa izango ordura arte maileguak erabiltzea ere.

2022 ekitaldia likidatzen denean aztertuko da hasiera batean aurreikusitako maileguak beharrezkoak diren aurrekontu oreka mantentzeko edo, aldiz, zati batean deuseztatu daitezkeen, izan ere, kreditua oso gutxitan baliatzen da, hau da, bestelako diru sarrerarik ez dagoenean erabiltzen da.

Kobrantsa zalantzarikako diru sarreren zenbatespena egiteko Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauan jasotako metodologia erabili zen.

Ekitaldi amaierarako aurreikusitako diruzaintzako geldikina positiboa da eta 124.458.280,60 € inportatzen ditu. Toki erakundeek aurrekontua arazoak izaten dituzte diruzaintzako geldikina 0€-koa denean edo balio negatiboa duenean. Ikus daitekeen moduan, zuzenketa neurriak hartzea eskatuko lukeen egoera horretatik oso urrun gaude.

Aurrezki garbia positiboa da. Horrek esan nahi du ohiko diru sarrerak nahikoa direla ohiko gastuak eta gauzatutako maileguen finantza amortizazioak finantzatze, eta Udalak etorkizunean mailegu berriak formalizatzeko aukera izango duela inolako mugarik gabe.

Zerga arauak eten egin dira 2022 ekitaldirako, Estatuko Diputatuen Kongresuak ondorioztatu baitu pandemia bat bizi dugula eta horrek ezohiko larrialdi egoera dakarrela. Hala ere, Konstituzioaren 135. 4 artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 artikulua ondoz ondo, Udalaren finantzaketa gaitasunari edo beharri buruzko informazioa eta zor finantzarioari buruzko informazioa ematen jarraitu behar da. Abenduaren 31ko datan lortutako datuen arabera, Udalak 35.707.603,70€-ko finantzaketa gaitasuna dauka, Kontu Sistema Europarraren (KSE) arabera, beraz, soberan betetzen du zerga arauak etenda ez egotekotan bete behar zen zero defizitaren helburua.

Ohiko diru sarrerekiko zorraren adierazleak % 19,41eko balioa du, erreferentziako indizea % 70 izanda. Ikuspegi honetatik ere egoera ona da.



Ondorioz, 2022 ekitaldiko likidazioa erabat normala izango da, inolako arazorik gabekoa.

Udalak hiru hilez behin ematen die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Estatuko Administrazioari aurrekontu betearazpenaren eta jarraian ageri diren alderdien egoeraren berri:

- Aurrekontu egonkortasuna
- Udal zor publikoaren egoera
- Gastu Araua
- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denbora

Helarazi den informazio horretan ez dago aipatu beharreko alderdi negatiborik.

Aurreko gutzia kontuan hartuta, 2022 ekitaldiko egoera ekonomiko-finantzario onak ez ditu inolaz ere baldintzatzen 2023 ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren prestaketa, izapidetzea, onarpena eta betearazpena.

2. ESPEDIENTEAREN EDUKIA

Aurrekontu Orokorraren Proiektuaren barne daude:

- a) Udalaren Aurrekontu Proiektua.
- b) Erakunde autonomo hauen Aurrekontu Proiektuak:
 - DonostiaTIK
 - Udal Musika eta Dantza Eskola
 - Kiroletako Udal Patronatua
- c) Udalaren erabateko partaidetza duten sozietate publiko hauen aurreikusitako diru sarrera eta gastuen egoera:
 - ANOETA KIROLDEGIA, S.A.
 - EGUSKIZA, S.A.
 - Servicios Funerarios de San Sebastián, S.A.

 - Sociedad de Fomento de San Sebastián, S.A.

 - DONOSTIA TURISMOA SAN SEBASTIAN
 - Sociedad del Balneario La Perla del Océano
 - Compañía del Tranvía de San Sebastián, S. A.
- d) Enpresa Erakunde Publiko hauen aurreikusitako diru sarrera eta gastuen egoera:
 - DONOSTIAKO ETXEGINTZA
 - DONOSTIA KULTURA



Kultura erakunde honek bi mendeko sozietate anonimo ditu:

MUSEO DE SAN TELMO, S.A.
TEATRO VICTORIA EUGENIA, S.A.

Proiektuan jasotzen da ere partaidetza publikoa duten erakunde hauen informazio ekonomiko-finantzarioa:

- CRISTINA ENEA Fundazioa
- Donostiako Musika Hamabostaldia
- Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea
- Miramar Jauregiaren Partzuergoa

Hori guztia Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Estatuko Administrazioari, aldian behin, honako hauen berri emateko:

- Aurrekontuaren egonkortasuna hiruhileko bakoitza amaitzean;
- Finantza egonkortasuna hiruhileko bakoitza amaitzean; eta
- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denbora eta merkataritza eragiketen berankortasuna hiruhileko bakoitzean.

Espedienteak barne ditu I2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5ekoak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duenak, 165. artikuluan eta hurrengoetan eskatzen dituen agiriak, 500/1990 Errege Dekretuak, Toki Ogasunen Lege Arazteak garatzen duenak, 8. artikuluan eta hurrengoetan eskatzen dituenak, eta 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 3. artikuluan eta hurrengoetan eskatzen dituenak. Jarraian zerrendatu dira agiri hauek:

Udala eta erakunde autonomoak.

- Gastuen eta diru sarreren egoera.
- Aurrekontua betearazteko araua.
- Jarduketan, inbertsioen eta finantzaketaren urteko programa.
- Aurrekontu bateratua.
- Inbertsio plana 2023. urterako eta hurrengoetarako.
- Edukiaren eta aurreko aurrekontuarekiko aldaketa nagusien inguruko memoria.
- 2022 ekitaldiko egoeraren balantzea.
- Gastuaren banakatzea jardueren arabera.
- Langileria buruzko eranskina eta aurrekontu proiektuaren barne dauden kredituekiko lotura egokia.
- Inbertsioen eranskina.
- Transferentzia arruntan eta kapitalezkoen eranskina.
- Txosten ekonomiko-finantzarioa, barne direla diru sarreren aurreikuspena, obligazio galdagarriak betetzeko behar diren gastuak eta proiektuaren berdinketa eraginkorra.
- Itunduko diren kreditu eragiketak, horien ezaugarri eta baldintzen xehetasunak eta formalizazio aurretiko



eta ondorengo karga. Proiektuan bildutako informazioa osatu egingo da txosten honetan emandakoarekin.

Erabateko partaidetza duten sozietate publikoak eta enpresa erakunde publikoak.

- Galera eta irabazien behin-behineko kontua.
- Egoeraren behin-behineko balantzea.
- Azalpen memoria.
- Ondare garbiaren aldaketen behin-behineko egoera.
- Transferentzia eta dirulaguntza arrunten eta kapitalezkoen eranskina.
- Langileen eranskina.
- Inbertsioen eranskina.
- Zorpetzearen eranskina.

Ondorioz, zinegotziek eta udal talde politikoek 2023 ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Proiektua onartzeari, zuzentzeari edo itzultzeari buruzko jarrera bat hartzeko behar adina informazio izango dute.

3. DIRU SARREREN ZEHAZTAPENAK, GASTUEN NAHIKOTASUNA ETA AURREKONTU PROIEKTUAREN BERDINKETA ERAGINKORRA.

2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5ekoak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duenak, 168. artikuluan xedatutakoaren arabera, 55/1990 Errege Dekretuaren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigorrez aztertu behar dira Aurrekontu Proiektuaren alderdi hauek:

- a) Diru sarrera arruntak ebaluatzeko erabilitako oinarriak.
- b) Kapital sarrerak eta kredituaren apelaziotik datozen diru sarrerak ebaluatzeko erabilitako oinarriak.
- c) Obligazio galdagarriei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituen nahikotasuna.
- d) Gastu arrunten berdinketa eraginkorra.
- e) Kapital gastuen berdinketa eraginkorra.
- f) Datozen ekitaldietako konpromiso kredituak eta inbertsio jarduketak finantzatzeko udal baliabideen nahikotasuna.

a) Diru sarrera arruntak ebaluatzeko erabilitako oinarriak.

Udal diru sarrerak aurreikusteko erabili den ereduaren arabera, urtero, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, erregistratzen dira aurrekontuko kontzeptu bakoitzean gertatzen diren gorabeherak, hots, errolden edo



likidazioen ondoriozko eskubideen aitortpena, zuzenketak, deuseztapenak, etab. Datu hauek biltzeari esker desberdintzen dira ohiko eta ezohiko kontabilitate oharrak, hartara informazio zehatzagoa emanda Aurrekontu Proiektuan sartuko diren diru sarrerren aurreikuspenei buruz.

Informazio horrekin eta Udalaren Osoko Bilkurak onartutako Ordenantza Fiskalak Aldatzeko Proposamenetik eratorritako aldaketekin zehazten dira ohiko udal diru sarrerren aurreikuspenak.

2023rako udal kudeaketako diru sarrerren aurreikuspena, 1., 2., 3. eta 5. kapituluetan, 160.340.996 €-koa da.

Aldaketa nagusiak jarraian adierazitako kontzeptuetan gertatu dira eta adierazitako arrazoiengatik:

Kontzeptua	2023	2022	Aldea	%
Hiri lurreko higiezinak	48.051.001	46.677.124	1.373.877	1,029
Ibilgailuak	10.962.670	11.056.343		
Gainbalioa	13.180.000	13.564.152		
EJZ	10.381.026	9.829.933		
Eraikuntzak	6.000.000	5.500.000		
Zaborrak	21.068.334	19.373.465		
Ura	9.487.016	9.471.073		
Saneamendua	11.634.506	11.526.371		

Kontzeptu guztietan aldatzen dira aurreikuspenak, oro har, hazkunde begetatiboagatik, erroldaz kanpoko likidazioengatik, deuseztapen eta itzulerengatik, eta kobraezinen aurreikuspenarengatik, aurreko ekitaldietan gertatutakoa kontuan hartuta.

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren aurreikuspena aldatu da, zehazki, Osoko Bilkurak onartutako Ordenantza Fiskalen Aldaketan ezarritako tasen % 1,5eko areagotzearen ondorioz.

Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, 2023rako kuotak mantendu dira, baina 2022 ekitaldiko zergaren errolda hasiera batean aurreikusitakoaren azpitik gelditu da, ibilgailuen kopuruaren murrizketa dela eta.

Lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aurreikusteko % 5eko murrizketa kalkulatu da zerga honetan, zerga hau erregulatzen duen ordenantza fiskala azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araura egokitu behar delako.

Ekonomia jardueren gaineko zergan, murrizketa justifikatu egin da udal diruzainak 2023rako egin duen diru sarrera kobraezinen ondorioz.

Hondakinen tasan, berriz, ordenantza fiskalaren aldaketatik eratorritako areagotzea jaso da, hots, zerga kuoten % 1,5eko areagotzea. Kontzeptu honetan, 2023. urterako aurrekontuan sartu da 2022an igorri ezin izan zen



jardueraren hondakinen 2022ko 4. hiruhilekoko igorpenaren zenbatekoa.

Garabi zerbitzuaren tasaren aurreikuspena 2022koa baino txikiagoa da, tasaren zenbatekoa % 1,5 areagotu arren, garabiaren jarduketak murriztuko direla aurreikusi baita.

Ibilgailuak aparkatzeko tasa (TAO) % 1,5 areagotu da 2023rako eta bi araututako aparkaleku eremu berri sortzea aurreikusi da: Melodi eta Loiola.

“Obragatiko okupazioak” partidak areagotze nabarmena izan du, 2022ko aurrekontuaren betearazpena kontuan hartuta.

Udal Finantzaketako Foru Funtsari dagokionez, 2023rako aurreikuspena bat dator Gipuzkoako Finantzako Lurralde Kontseiluak 2022ko urrian onartu zuenarekin eta 165.931.911,00 € inportatzen ditu.

Aurreikuspenaren hasierako aurreikuspena Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du, baina ez da bermatutako kantitatez jotzen, aldiz, Lurralde Historikoan modu eraginkorrean bildutakoaren eta autonomia erkidegoan egingandako banaketaren (arriku partekatua) arabera aldatzen da eta behin betiko zenbatekoa 2023ko otsailan zehazten da. Benetan bildutakoa aurreikuspenaren gaineratik badago, diru sarrera osagarria sortzen da eta, bildutakoa aurreikuspenaren azpitik badago, ekitaldian jasotako zenbatekoen kontuko itzulera bat sortzen da.

Jasoko direla aurreikusi diren dirulaguntzak 2022an jasotako zenbatekoen antzekoak dira eta zuzentzat jo dira.

b) Kapital sarrerak eta kredituaren apelaziotik datozen diru sarrerak ebaluatzeko erabilitako oinarriak.

2023 ekitaldirako kapital diru sarrerak 56.538.923,00 €-koak dira eta hauek dira garrantzitsuenak:

Partzelen salmenta ATOTXA ERREKAN	1.151.184,00 €
Partzela baten salmenta ESKUZAITZETAN	10.500.000,00 €
Lagapen eta bestelako hirigintza aprobetxamenduen monetizazioa	1.700.000,00 €
Inbertsioaren berreskuratzea San Bartolome Muinoa	6.642.315,00 €
Europako dirulaguntza Next Generation programan	9.685.890,00 €
Hirigintza kuotak LORATEGI HIRIKO jabeak	3.907.982,00 €
Kreditu eragiketak	7.211.866,00 €

Aurrezki arruntak, hots, ohiko diru sarreren eta izaera bereko gastuen arteko aldeak, 379.241,00 € inportatzen ditu eta zenbateko hori inbertsioak egiteko bideratzen da.



c) Obligazio galdagarriei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituen nahikotasuna.

Aurrekontu Proiektuaren gastuen egoera aztertu ondoren, egiaztatu da Udalari, erakunde autonomoei, enpresa erakunde publikoei eta sozietate publikoei galdagarriak zaizkien obligazioei aurre egiteko, eta langileen, gizarte segurantzaren, aseguruaren, errentamenduen, askotariko kontratuen, finantza gastuen, maileguren amortizazioen eta abarren inguruko obligazioei aurre egiteko nahikoa kreditu barne dituela.

Era berean, Udalaren gastuen egoeran jaso dira erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta udal sozietateek, Udalaren ekarpenen bitartez, beren gastuen egoerak orekatzeko behar diren kredituak.

Ur eta saneamenduaren aurrekontu programetan jaso dira Añarbeko Urak Mankomunitatearen erabateko partaidetza duen Añarbeko Urak sozietateari egindako ordainketak egozteko aurrekontu kredituak. Aurreikuspena egin da 2023rako aurreikusitako kontsumo kantitateen arabera eta Administrazio Kontseiluak ekitaldi horretarako onartu dituen tarifen arabera.

Zaborrak bildu eta isurtzeko aurrekontu programan jaso da 2023rako aurreikusi den San Markos Mankomunitateari zuzendutako ekarpena, aipatu ekitaldirako Mankomunitateak egin duen Aurrekontu Orokorren Proiektuaren arabera.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergorako aurreikusitako ekarpena Partzuergo bereko organoak onartzen du.

Aurrekontu Proiektuan behar bezala jaso dira 2023an eragina izango duten Udalaren Osoko Bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren arteko akordioak.

d) Gastu arrunten berdinketa eraginkorra.

Udalaren diru sarrera ohikoak edo arruntak izaera bereko gastuak baino 379.241,00 € handiagoak dira, beraz, zenbateko hori duen aurrezki arrunta sortzen da inbertsioak finantzatzeko.

e) Kapital gastuen berdinketa eraginkorra.

Kapital gastuak (inbertsioak) izaera bereko diru sarrerak baino handiagoak dira eta alde hori bat dator aurrezki arruntarekin.



f) Datozen 2024, 2025, 2026 eta 2027 ekitaldietako konpromiso kredituak eta inbertsio jarduketak finantzatzeko udal baliabideen nahikotasuna.

Aurrekontu Orokorraren Proiektuan, zenbateko hauekako inbertsio jarduketarako kreditu konpromisoak aurreikusi dira aipatu ekitaldietarako:

-2024 ekitaldia	30.619.429 €
-2025 ekitaldia	30.713.738 €
-2026 ekitaldia	8.133.660 €
-2027 ekitaldia	2.188.155 €

4. 2023RAKO AURREKONTU PROIEKTUAREN AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA JASANGARRITASUN FINANTZARIOAREN ANALISIA.

Aurrekontu Orokorraren Proiektuak, aurreko ataletako funtsezko arau hauek betetzeaz gain:

-Gutzizko diru sarrerak guztizko gastuen parekoak edo handiagoak.

-Ohiko diru sarrerak ohiko gastuen eta amortizazio finantzarioen parekoak edo handiagoak, hau da, aurrekontu proiektuak aurrezki garbi positiboa izatea.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Legea bete behar du, arau klasiko hauek gehitzen dituena:

-Aurrekontu egonkortasuna.

-Jasangarritasun finantzarioa.

Arau eta helburuen betetzea desberdina da erakundea ADMINISTRAZIO PUBLIKOA bada edo SOZIETATE EZ FINANTZARIOA bada.

Administrazio publikoak dira ondoz ondoko ekitaldietan guztizko diru sarreren % 50 baino gehiago dirulaguntzetatik jasotzen dituztenak eta, beraz, mendeko erakundeak direnak.

Sozietate ez finantzarioak dira dirulaguntzak ez diren % 50etik gorako diru sarrera propioak dituzten erakundeak.

Udal sektore publikoa osatzen duten erakundeen artean, administrazio publikoak dira:

Udala

Kiroletako Udal Patronatuaren erakunde autonomoa

DonostiaTik erakunde autonomoa

Musika eta Dantza Eskolaren erakunde autonomoa



DONOSTIA KULTURA enpresa erakunde publikoa

San Telmo, S.A. sozietatea

Victoria Eugenia, S.A. sozietatea

ANOETA KIROLDEGIA sozietatea

Donostia Sustapena sozietatea

DONOSTIA TURISMO sozietatea

Compañía del Tranvía sozietatea

Erakunde esleituak: Miramar Jauregiaren Partzuergoa

CRISTINA ENEA Fundazioa

Donostiako Musika Hamabostaldia

Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea

Sozietate ez finantzario gisa sailkatu dira edo oraindik ere sailkatu gabe daude eta aurrekoen araubidean jarraitzen dute:

ETXEGINTZA enpresa erakunde publikoa

La Perla sozietatea

Servicios Funerarios

EGUSKIZA, S.A.

Erakunde esleituak: ZORROAGA Fundazioa

KURSAAL, S.A.

2023 ekitaldirako analisisia

Diputatuen Kongresuak erabaki zuen, Ukrainako gerra zela eta, Konstituzioan eta Aurreko Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren Legean aurreikusten diren ezohiko baldintzak ematen direla 2023ko ekitaldian arau fiskalak eteteko.

Ildo berean, Gipuzkoako toki erakundeek 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzko azaroaren 8ko 3/2023 Foru Dekretu-Arauek, hau xedatzen du aurrekontu egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari dagokionez:

-Eten egin dira arau fiskalak 2023 ekitaldirako.

-Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denborari buruzko betebeharrak eta hauen betetzearen kontrola mantendu egingo dira.

-Defizit eta zor helburuak erreferentziako tasatzat joko dira.



-Defizit helburua gainditzekotan, Ekonomia eta Finantza Plana bete beharko da, baina kudeaketa eta plangintza tresna bat izango da, neurri gehigarriak hartzeko betebeharririk gabe.

Ondorioz, 2023an, ez da helburu fiskalik egongo, baina kontu hartzaileek helburu guztien berri eman beharko dugu aurrekontuan onartzean, aurrekontuaren betearazpenean eta, ekitaldia amaitzean, likidazio eta kontu orokorrean.

Horregatik guztiagatik, Kontuhartzailetza Nagusiak aldi behin emango du alderdi hauen berri:

Aurrekontu egonkortasuna: azaroaren 8ko 3/2023 Foru Dekretu-Arauren arabera, 2.993.608,00 euroko gehieneko defizita baimentzen da.

Zor publikoa: gehieneko zor biziaren ratioarekiko egoera: administrazio taldeko ohiko diru sarrera bateratuen % 70.

Ordaintzeko batez besteko denbora: ratioarekiko egoera: 30 eta 60 egun artean.

Administrazio taldeko erakundeen aurrekontu egonkortasuna

1-7 kapituluetakoko diru sarreraren aurreikuspenaren eta 1-7 kapituluetakoko gastuen aurreikuspenaren arteko aldea, betiere modu bateratuan, gehienez 2.993.608,00 euroko defizita izatea eskatzen da.

Txosten honen eranskinetik ondorioztatzen da aurreko aldea 2.771.512,00 €-koa dela, beraz, bete egiten da azaroaren 8ko 3/2023 Errege Dekretu-Arauan xedatutakoa.

Sozietate ez finantzarioen taldeko erakundeak

Araua beteko da baldin eta erakunde bakoitzak, bere aldetik, finantza oreka lortu badu, hau da, emaitzen kontuak edo galdu-irabazien kontuak galerarik eman ez badu.

Talde honetako Udalaren mendeko erakunde bakar batek ere ez du galerarik izan, beraz, 2023rako helburua bete da.

Udal zorra

Administrazio taldeko erakundeen udal zorra

Zorren ratioa beteko da baldin eta zor biziaren zenbatekoa gehi administrazio taldeko erakundeen baliatutako abalaz ez badira administrazio talde bereko diru sarrera arrunt bateratuen % 70 baino handiagoak.



2022ko abenduaren 31ko datan bete nahi diren aurreikuspenak dira:

Administrazio taldeko zor bizia eta baliatutako abalak	71.915.777,99€
Taldearen 2022ko ohiko diru sarrera bateratuak	389.762.548,00 €
Zor bizia + baliatutako abalak / ohiko diru sarrera bateratuak:	% 18,45
2022rako erreferentzia	% 70

2022rako indizea erreferentzia gisa ezarritakoa baino txikiagoa da.

Sozietate ez finantzarioen taldeko erakundeak

Ez dute inolako helbururik bete behar zorraren mugari dagokionez. Behar adina zorpetu daitezke, betiere emaitzen kontuan galerarik ageri ez bada.

5. AURREKONTU PROIEKTUAN 2/2006 LEGEA, EKAINAREN 30EKOAK, LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKOAK, BETETZEA.

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, lurzoruaren merkatuko administrazioaren esku hartzeari buruzko IV. tituluko lurzoru ondare publikoei buruzko I. kapituluan jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen urteko aurrekontu orokorreari eragiten dieten zenbait xedapen.

Betebehar hauek ezartzen ditu xedapenak:

- 1) Proiektuan jasotzen diren ezohiko edo kapitalezko diru sarreretan jakinarazi beharko da lurzoru ondare publikoen xedeen eraginpean dauden ala ez.
- 2) Urtero, lurzoru ondare publikorako bideratuko da diru sarreraren egoeraren I. eta II. kapituluetakoko % 10. Ehuneko hori laurteko aldietarako ezarri da, beraz, urte bakoitzean, oinarrizko % 10eko horrekiko areagotzeak edo murrizketak gertatu ahalko dira.
- 3) Eraginpeko diru sarrerak, bai ohikoak eta bai kapitalezkoak ere, xede hauetarako baliatu ahalko dira:
 - a) Babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko.
 - b) Lurzorua erosi eta sustatzeko, sustapen edo interes publikoko ekonomia jardueretarako.
 - c) Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak bakarrik edo horietako batzuk barnean dituzten eremu edo sektoreen urbanizazio obretarako.



- d) Ekipamendu kolektiboak eraikitzeko, birgaitzeko edo hobetzeko.
- e) Historia eta kultura ondarea birgaitzeko.
- f) Ondasun eta eskubideak jabetzan hartzeko bi eremu motatan: lurzoruaren udal erreserbarako eremuen mende daudenak eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen mende daudenak.
- g) Degradatutako eremuetan birgaitzeko obrak egiteko edo eremu horietan zuzkidura publikoak eta sistema orokorrak eraikitzeko. Ondore hauetarako, Hirigintza Zuzendaritzak degradatutako eremuen mapa ezarri du.

Udalaren lurzoru ondarearen xedeetarako bideratzen den ohiko diru sarrerren kantitatea adierazi behar da. Ezer zehaztu ez arren, arrazoizkoa dirudi, era berean, ezohiko edo kapitalezko diru sarreretan ere adieraztea Legean aurreikusitako xede bakoitzera bideratutako kantitatea.

Legearen 112. artikulua debekatu egiten du baliabideak beste xede batzuetarako bideratzea eta baliabide horien erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Kontuen Epaitegiaren fiskalizaziopean egongo dela dio.

Kapital sarrera hauek daude udalaren lurzoru ondarearen eraginpean:

Partzela eta higiezin salmenta	15.271.796,00€
Hirigintza jarduketetatik eratorritako diru sarrerak	10.550.297,00€
Hirigintzako aprobetxamenduak	1.700.000,00€
Diru sarrerren 1. eta 2. kapituluetakoko % 10	8.858.301,30€
ULO gastuetarako ekarpenak	11.951.085,42€
GUZTIRA	48.331.479,72€

Aurrekontu Proiektuan jasotako 2023rako inbertsio jarduketak aztertu ondoren, ondorioztatu da Udalaren lurzoru ondarearen xedeekin bat datozela, guztira, 48.560.867,00 €. Hona hemen zenbateko horren banakapena xedeen arabera:

Babes publikoko etxebizitzaren jarduketak eta etxebizitzarako inbertsio pribatuen sustapena	11.089.229€
Lurzorua erosi eta sustatzeko, sustapen edo interes publikoko ekonomia jardueretarako	600.000€
Azpiegitura eta zuzkidura publikoak eraikitzeko, birgaitzeko edo hobetzeko jarduketak	11.681.814€
Historia eta kultura ondarea birgaitzea, berreskuratzea eta hobetzea	650.000€
Udal ekipamendu kolektiboak eraikitzea, birgaitzea edo hobetzea	24.539.824€

Aurrekoa ikusita ondorioztatzen da, Aurrekontu Proiektuari dagokionez, Udalak bete egin duela 2/2006 Legean ezarritakoa.



6. ADMINISTRAZIO TALDEKO AURREZKI GARBIA, ZORRAREN AURREIKUSPENA 2022.12.31KO DATAN ETA MAILEGU BERRIEN AZTERKETA

Administrazio taldeari dagokion Aurrekontu Proiektuaren aurrezki garbia

Aurrezki garbia funtsezkoa da, izan ere, balio positiboa badu, horrek esan nahi du erakundea gai dela ohiko diru sarrerekin ohiko gastuak eta zorretik eratorritako gastuak finantzatzeko eta, gainera, ezohiko gastuetarako baliabideak ere badituela.

2023 ekitaldirako Aurrekontu Proiektuan jasotako informazioaren arabera eta 2023ko abenduaren 31rako aurreikusitako zor biziarekin, administrazio taldearen aurrezki garbiak 2.231.124,66 €-ko balio positiboa du, xehakapen honen arabera:

-Diru sarrera arrunt bateratuak (1. - 5. kapituluaren batura)	389.762.548€
-Gastu arrunt bateratuak (1., 2. eta 4. kapituluaren batura)	- 376.904.473€
-Urteroko teorikoa	-10.626.950,34€
GUZTIRA	2.231.124,66€

Administrazio taldearen zor bizia

Udal sektore publikoaren zor bizia, 2023ko abenduaren 31ko datan, 72.147.398,82 €-koa izango da guztira, laburpen honen arabera:

Udala	65.951.892,99€
DBUS	6.195.505,83€

2023 ekitaldirako administrazio taldearen ohiko diru sarrera bateratuak 389.762.548 €-koak izango dira.

“Zorra eta abalak / ohiko diru sarrera bateratuak” indizea % 18,45ekoa da, beraz, oso arrazoizkoa da eta 2023rako ezarri den % 70eko mugaren nabarmen azpitik dago.

2023an formalizatuko diren mailegu berrien azterketa

2023an egingo diren administrazio taldearen mailegu berrien zenbatekoak 8.497.575,22 € inportatzen ditu.

2023 ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Proiektuan jasotako administrazio taldearen ohiko diru sarrera bateratuak 389.762.548 €-koak dira.



Maileguen zenbatekoa, administrazio taldearen ohiko diru sarrera bateratuekin alderatuta, % 2,18koa da.

Zorraren eta abalen urteroko teorikoak 17.869.207 € inportatuko ditu 2023ko abenduaren 31ko datan.

Urteroko teorikoaren indizea, ohiko diru sarrera batuekin alderatuta, % 4.58koa da.

Maileguen zenbatekoa, ohiko diru sarrera bateratuekiko, % 3tik beherakoa denez eta mailegu eta abalen urteroko teorikoa % 5etik beherakoa denez, mailegu berrien zenbatekoa oso arrazoizkotzat jotzen da eta ez du Udalaren finantza tutoretzaren arduraduna den Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko baimenik behar. Hala ere, maileguak formalizatzeko momentuan, Aldundiari jakinaraziko zaizkio dagokion toki erakundeen zorpetzearen datu basea eguneratu dezan.

7. ONDORIOAK

Hona hemen aztertu den 2023rako Aurrekontu Orokorraren Proiektua eta Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa:

- 2022 ekitaldiaren itxiera eta likidazioa superabitarekin egingo dira eta, ondorioz, ez da beharrezkoa izango izapidetzen ari den 2023ko aurrekontuari eragingo dion doikuntzarik egitea.
- Ohiko Aurrekontuaren Proiektuak diru sarreraren egoera errealista bat islatzen du, nabarmenki nahikoak direnak, betearazteko egingarriak eta gastuen egoeraren guztizko zenbatekoa baino handiagoak. Gastuei dagokienez, arrazoizko moduan islatzen dituzte erakundeak izango dituen obligazioak.
- Ohiko diru sarrerak ohiko gastuak baino handiagoak dira Aurrekontu Orokorrean, zehazki 379.241 € handiagoak, beraz, kapital sarrerekin finantzatutakoak baino inbertsio handiagoak egin ahalko dira.
- Proiektuak aurrekontu egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari buruzko 2023rako araudia betetzen du.
- Administrazio taldea osatzen duten erakundeek ere betetzen dute, modu bateratuan, aurrekontu egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari buruzko 2023rako araudian xedatutakoa.
- Administrazio taldea osatzen duten erakundeen zorraren maila eta baliatutako abalak % 18,45ekoak dira, administrazio taldearen ohiko diru sarrerekin alderatuta, hau da, 2022rako ezarritako % 70etik behera daude.
- Sozietate ez finantzario gisa sailkatutako gainerako erakundeek ez dute galerarik jaso 2022rako behin-



behineko galera eta irabazien kontuan, hartara aurrekontu egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari buruzko erreferentziako irizpideak beteta.

- Aurreikuspenen arabera, erakunde guztiek beteko dute, orain arte bezala, obra, hornidura eta zerbitzu hornitzaileei ordaintzeko 30 eta 60 egun arteko batez besteko epea.
- Proiektuak bete egiten du Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, izan ere, udal lurzoru ondarea osatzen duten baliabideak Legeak baimendutako jarduketetarako erabiltzen dira eta jarduketa horiek inportatzen duten zenbatekoa eragindako baliabideak baino handiagoa da.

Horregatik guztiagatik, 2023 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektuaren inguruko ALDEKO txostena egin da eta Osoko Bilkurari helaraziko zaio hura onartzea, zuzentzea edo itzultzea erabaki dezan.

Donostia, 2023ko urtarrilak 5.